

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2008/09

Lehen Hezkuntza

AZken TXostena

2009ko urria

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua
Ebaluazio Atala

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
2. Irakurtzeko gaitasuna gaztelaniaz.....	5
2. 1 Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen %	
2. 2 Gaitasun mailak: esanahia	
2. 3 Itemak: informazioa, adibideak eta atxikipena mailei	
2. 4 Eraitza orokorra	
3. Gaitasun matematikoa	15
3.1 Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen %	
3.2 Gaitasun mailak: esanahia	
3.3 Itemak: informazioa, adibideak eta atxikipena mailei	
3.4 Eraitza orokorra	
4. Irakurtzeko gaitasuna euskaraz	26
4.1 Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen %	
4.2 Gaitasun mailak: esanahia	
4.3 Itemak: informazioa, adibideak eta atxikipena mailei	
4.4 Eraitza orokorra	

1. Sarrera

Hezkuntzaren Lege Organikoaren 21. artikulua ezartzen du ebaluazio diagnostikoa egin beharra dagoela Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa bukatzean, ondoko ezaugarriekin:

- Zentsala, ikasle guztiek egin behar dutena
- Oinarrizko gaitasunen gainekoa
- Informatiboa, ikasleendako eta familiendako
- Prestakuntzazkoa, hobekuntzara bideratua

Ebaluazioa gaitasun matematikora eta heziketa-hizkuntzetan irakurtzeko gaitasunera bideratu da; proben erreferentzia den ebaluazioaren esparru teorikoa 2008-09 ikasturtean argitaratu zen.

Errendimendu probak Ebaluazio Atalak prestatu ditu, lanean ari diren maisu/maistrek taldeka egindako lanetik abiatuak. Beraz, kanpokoak eta ezezagunak izanen dira ikastetxeendako. Ikastetxe guztietan egun beretan aplikatu dira eta aurrez finkaturiko irizpideen arabera zuzendu dira.

Ebaluazio diagnostikoaren emaitza berehalakoa ikasle bakoitzarendako egindako txosten indibiduala izan zen. Tutoreek familiei ekainean eman zieten horren berri.

Irailean, ikastetxeek txostena jaso zuten ikasleen emaitzekin eta Nafarroako datu orokorrekin: batez besteko puntuazioak, ikasleen ehunekoak gaitasun mailetakoko bakoitzean, asmatuak izan zirenen zenbaterako, etab.

Txosten hau aurreko informazioa osatzera dator perspektiba orokor batetik, aurrekoei gehituz gaitasun mailen esanahia, item esanguratsuen gaineko oharrak eta puntuazioen banaketaren grafikoak.

Ikastetxe guztiek zein administrazio unitateek lan garrantzitsua egin dute. Helburua izan da ikastetxe guztietako emaitzak hobetzea. Helburu horri zuzentzen zaio txosten orokor hau.

Izaera zentsala eta salbuespenak

Lehen Hezkuntzako 4. mailako matrikula osoa, 2008-09 ikasturtean, 6.253 ikasle izan zen; ikasle horiei zuzendu zitzaizkien ebaluazio diagnostikoa. Ebaluazio orotan bezala, kontuan izan behar da gerta daitekeela ikasle batzuek ezintasun tekniko bat izatea probak beharrezko baldintzetan egiteko, eta hori dela kausa, hiru salbuespen arrazoi ezarri ziren: gure hezkuntza sisteman sartu berriak direlako probaren hizkuntza ezagutzen ez duten ikasleak; NHBBZn zentsaturiko ikasleak, urritasun psikiko edo intelektuala dutenak edo mugimen edo zentzumen urritasuna dutenak. Egoera horiek aplikatzearen ondorioz zehaztu zen proben helburu diren ikasleak 6.073 direla.

Ondoko taulan azaltzen dira izaera zentsala eta egindako ebaluazioaren munta ikustarazten duten datuak:

Matrikulazio eta parte hartze datuak

	Lehen Hezkuntza 4. kurtsoa	
	N	%
Matrikula osotara	6253	100
Salbuetsitako ikasleak	180	2,9
Ikasleak osotara	6073	97,1
Probak egin zituzten ikasleak	5896	94,3
Probak egin ez zituzten ikasleak	177	2,8

Salbuetsitako 180 ikasleetatik batzuek probak egin zituzten eta banakako txostena erdietsi zuten. Hala egin zen, tutoreek pentsatu zutenean eskuratu behar zuten informazioak beraien lanerako ikuspegi osagarria eta erabilgarria eman behar zuela. Txostenetan emandako emaitzetan ez dira kontuan izan ikasle salbuetsiak.

Probak aplikatzeko protokoloan adierazten zen ebaluazioaren egunean bertaratzen ez ziren ikasleek ondoren eginen zutela proba. 177 ikaslek ez zituzten probak egin hala egokitu zitzaienean. Horrek badirudi adierazten duela ikasle horiek absentzia luzeak izan zituztela maiatzean.

2. Irakurtzeko gaitasuna gaztelaniaz

2.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen %

Proba bi testuk osatu dute: “*Un niño pequeño en una ciudad pequeña*” izenekotik 14 item osatu ziren eta “*El pastor de las abejas*” izenekotik 13. 27 galdera izanik osotara, 23 balioetsi dira puntu 1ekin; 3, 2 punturekin; eta 1, 3 punturekin. Kasu hauetan puntuazio partzialak ere onartu dira.

Itemek zailtasun maila desberdinak dituzte; batzuk oso errazak dira, eta %94ak asmatu dituzte. Beste batzuk ordea, oso zailak dira, eta ikasleen %21ak baino ez ditu asmatu.

27 itemetako lanak ebaluazio diagnostikoan ezarritako irakurketa prozesuekin erlazionatzen dira. Ondoko taulan erakusten da galdera bakoitzak irakurketa prozesu batekin duen erlazioa.

Irakurtzeko gaitasuna gaztelaniaz

Item Zkia.	Gehienezko puntuazioa	Irekia edo itxia	Asmatuen %	Prozesu ebaluatzailea
1	2	A	59	Interpretatzea
2	1	C	91	Informazioa bilatzea
3	1	C	77	Informazioa bilatzea
4	1	C	93	Informazioa bilatzea
5	1	A	96	Ulermen orokorra
6	2	A	52	Interpretatzea eta berregitea
7	1	C	94	Interpretatzea eta berregitea
8	1	A	45	Interpretatzea eta berregitea
9	1	C	92	Interpretatzea eta berregitea
10	2	A	53	Edukiaren gaineko hausnarketa
11	1	A	63	Ulermen orokorra
12	1	C	88	Interpretatzea eta berregitea
13	1	A	36	Edukiaren gaineko hausnarketa
14	1	A	76	Interpretatzea eta berregitea

15	1	A	93	Informazioa bilatzea
16	1	A	80	Informazioa bilatzea
17	1	A	86	Informazioa bilatzea
18	1	C	85	Informazioa bilatzea
19	1	C	80	Informazioa bilatzea
20	1	C	88	Informazioa bilatzea
21	1	C	82	Interpretatzea eta berregitea
22	1	A	77	Informazioa bilatzea
23	1	A	72	Ulermen orokorra
24	1	C	21	Ulermen orokorra
25	1	A	67	Formaren gaineko hausnarketa
26	1	A	58	Edukiaren gaineko hausnarketa
27	3	A	40	Ulermen orokorra

2.2. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz, ezagutu daiteke zer dakiten egiten eta zer ez duten menderatzen. Gaitasuna mailaka banatu da, ondoko esanahiarekin:

1. MAILA

Maila honetan dauden ikasleak gai dira informazio erabat literala ulertzeko, bai narrazio testuetan eta bai azalpenzkoetan; nolana ere, zailtasunak dituzte interpretazioa, ulermen orokorra, hausnarketa eta balioespenak eskatzen dituzten galderei erantzuteko orduan. Hortaz gainera, gai dira identifikatzeko narrazioaren pertsonaiak eta jakiteko nork kontatzen duen istorioa.

2. MAILA

Maila honetan dauden ikasleek zuzen erantzuten diete 1. mailako galderei; hots, informazio erabat literalaren ulermena eskatzen dutenei, bai narrazio testuetan eta bai azalpenzkoetan. Hortaz gainera, informazioa bilatzeko galderei ere erantzuten diete, baina ez zorrozki literalak diren galderei, horiek egoeraren ulermen maila handiagoa eskatzen baitute. Nolanahi ere, ikasle horiek ez dute zailtasunik ulermen orokorrari dagokionez, eta testu idatzi bat interpretatzeari eta balioesteari dagokionez (narraziozkoa zein azalpenzkoa izan). Alderdi hauetan edukiaren gaineko hausnarketa eskatzen zuen galderaren bat nola hala erantzun dute (zergatik uste duzu zuk...?). Gisa berean, eskema bat egiteko orduan, nola hala egiten dute.

3. MAILA

Maila honetan dauden ikasleek egoki erantzuten diete informazioa berreskuratzearekin erlazonaturiko galdera literalei eta ez literalei. Gainera, testua orokorrean ulertzen dute eta gai dira berreraikitzeke, emandako esaldien bidez, istorioaren sekuentzia. Edukiarekiko hausnarketarekin loturiko maila egokia erakusten dute. Adibidez, gai dira justifikatzeko istorio bat iraganean pasatu zen edo duela gutxi gertatu den, testutik arrastoak atereaz. Gainera, testu eten batean ulertzen dute informazioaren banaketa eta non aurkitu daitekeen informazio mota berriazko bat. Gai dira balioesteko eta hausnartzeko testu baten gainean, informazioa baliatuz kasu hipotetikoak planteatzeko.

3+ MAILA

3. mailan inplikaturiko lanak zuzen egiteaz gain, konplexuagoak direnak ebazten dituzte. Adibidez, gai dira azalpenezko testu baten eskema zuzentasunez egiteko eta hausnarketak eta interpretazioak egiten dituzte testuaren edukiaren gainean, egiatzotasun irizpideei doiturik. Gai dira, halaber, narrazio baten edukia sintetizatzeke, titulurik egokiena hautatuz.

Mailen zenbakizko definizioa

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tarteko puntuazioa erdiestea:

	Irakurriaren ulermena gaztelaniaz Puntuazio- tartekak
1. maila	0-16
2. maila	17-20
3. maila	21-26
3+ maila	27-32

2.3. Itemak: informazioa, adibideak eta atxikipena mailei

Maila bereko ikasleek galderei zuzentasunez erantzuteko joera dute, zailtasun maila batera iritsi arte, eta huts egiten dute beraiendako zailak diren beste batzuetan. Horrela, huts egindako galdera horiek informazioa ematen digute, jakiteko zeintzuk diren mailen arteko diferentziak.

Adibidez, 15. galdera erraza izan da oro har, ikasleak gai izan dira informazioa testuan kokatzeko. 19. galdera, informazioa bilatzekoa, zailagoa da, kasu honetan informazioa filtratu egin behar da, ez da horren berehalakoa. 26.ak irakurketaren edukiaren gaineko hausnarketa lan bat planteatzen du eta hori gaitasun maila handiena duten ikasleek baino ez dute egiten. Azkenik, 24.a ulermen orokorreko prozesu bat da, eta zorrotasuna eta

ñabarduretarako gaitasuna eskatzen du. Galdera hori zaila izan da baita gaitasun handiko ikasleendako ere.

Aipaturiko galderak ondoren azalduko ditugu. Erreferentzia egiten diote atal honen bukaeran azalduko "El pastor de las abejas" testuari:

15. ¿Cómo se llama la persona que cuida las abejas?

.....

Erantzun zuzena	Erlezaina (<i>apicultor</i>)
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Ireakia
Irakurketa prozesua	Informazioa bilatzea
Gaitasun maila	1. maila
Asmatuen % 1. mailan	72
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	93
Itemaren balioespena	Itena erraza izan da maila guztietako ikasleendako

19. ¿Por qué están desapareciendo las abejas?

- A Porque hay animales que se las comen.
- B Porque están apareciendo enfermedades nuevas.
- C Porque se alimentan de flores tratadas con insecticidas.
- D Porque cada vez hay menos plantas con flores.

Erantzun zuzena	C erantzuna
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Informazioa bilatzea
Gaitasun maila	2. maila
Asmatuen % 2. mailan	68,6
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	80
Itemaren balioespena	1. mailako ikasleek ez dute item hau zuzen erantzuten

26. ¿Qué podemos hacer para evitar que mueran las abejas?

.....

.....

.....

.....

Erantzun zuzena	Zuzentze irizpideen arabera
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Irekia
Irakurketa prozesua	Edukiaren gaineko hausnarketa
Gaitasun maila	3. maila
Asmatuen % 3. mailan	68,9
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	58
Itemaren balioespena	1. eta 2. mailetako ikasleek ez diote ongi erantzuten item honi

24. ¿Qué título puede ser el más adecuado para el texto que has leído?

- A La vida del apicultor.
- B La vida de las abejas.
- C Los beneficios de la miel.
- D Construcción de una colmena.

Erantzun zuzena	A erantzuna
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Ulermen orokorra
Gaitasun maila	3+ maila
Asmatuen % 3+ mailan.	38,4
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	21
Itemaren balioespena	Itema oso zaila izan da

Ondoko taulak adierazten du itemak zein gaitasun mailari dagozkion. Hori baina, modu kualitatibo eta gutxi gorabeherakoan ulertu behar da. Izan ere, maila batean eta bestean

dauden ikasleek izandako asmatuen ehunekoen artean izan daitekeen diferentzia ez baita beti ere aski zabala estatistikoki segurtatzeko erabat ikasle bat maila bati edo besteari dagokion.

Erantzun partziala edo osoa izan dezaketen galderak maila desberdinei dagozkie, ebaluatoriko prozesua gehiago menderatzea edo zabaltzea ahalbidetzen badute.

Item zkia..	Zein mailari dagokion
1	2. maila
2	1. maila
3	2. maila
4	1. maila
5	1. maila
6	3. maila erantzun partziala edo ez osoa. 3+ maila, erantzun osoa
7	1. maila
8	3+ maila
9	1. maila
10	2. maila erantzun partziala edo ez osoa. 3+ maila, erantzun osoa
11	3. maila
12	1. maila
13	3. maila
14	2. maila
15	1. maila
16	2. maila
17	2. maila
18	2. maila
19	2. maila
20	1. maila
21	2. maila
22	2. maila
23	2. maila
24	3+ maila
25	3. maila
26	3. maila
27	2. maila erantzun partziala edo ez osoa. 3+ maila, erantzun osoa

2.4. Emaitza orokorrak


Estatistika taula (irakurtzeko gaitasuna gaztelaniaz)

Kop. osotara	5896
Gaitasun kop.	4345
Nesken kop.	2082
Mutilen kop.	2263
Gutxieneko puntuazioa	1
Gehienezko puntuazioa	32
Batez besteko puntuazioa	21,88
Desbideratze tipikoa	5,09
Nesken batez bestekoa	22,29
Mutilen batez bestekoa	21,50
1. maila (%)	14,36
2. maila (%)	18,25
3. maila (%)	49,76
3+ maila (%)	17,63

Azpimarratzeko alderdiak

- Diferentzia garrantzitsuak daude norbanakoen puntuazioen artean: badira 32 puntu dituztenak, eta puntu bakarra dutenak.
- “Kop. osotara” eta “Gaitasun kop.” laukitxoaren arteko desberdintasuna da D ereduko ikasleek euskaraz egin zutela irakurtzeko gaitasunaren proba, gaztelaniaz egin beharrean.


Banaketa mailaka



10 ikasletatik ia 7k erdietsi dute 3. maila edo 3+ maila; gai dira beraien adinari dagozkion irakurtzeko prozesuak gauzatzeko.


10 ikasletatik 3 ez dira gai irakurtzeko prozesuak behar bezala egiteko. Horietatik erdiak neurri bereziak behar dituzte, beheko mailan daudelako

Banaketa, sexuaren arabera



Neskek mutilek baino puntuazio handiagoa erdietsi dute: 0,79 puntu. Diferentzia hori ez da handia.

Puntuazioen banaketa



Puntuazioen banaketa, banaketa normalarekin erkatuz gero, honakoa da:

- Zorrotzagoa, puntuazio kontzentrazio handiagoa dago batez bestekoaren inguruan
- Asimetriko negatiboa, moda (24 puntu), batez bestekoaren (21,88 puntu) eskuinean du.

El pastor de las abejas

El apicultor coloca las colmenas cerca de las flores y cosecha la miel. Para ello, tiene que vigilarlas de cerca. ¿Cómo lo hace?



¿Cuándo recoge la miel?

Al final del verano, las abejas han llenado todas las celdillas de la colmena. El apicultor la cosecha de los cuadros del cajón. Pero deja a las abejas la miel del piso de la colmena, para que la colonia se alimente durante el invierno.



¿Cuánta miel producen las abejas de una colmena?

Depende de las flores que liben y de la meteorología. Los apicultores cosechan entre 20 y 40 kilos de miel por colmena y año. Pero, desde hace diez años recogen menos, porque cada año desaparecen las abejas de 400.000 colmenas. Los apicultores las sustituyen, pero las nuevas abejas producen menos que las anteriores.



¿Por qué desaparecen las abejas?

Primero se creyó que era debido a una epidemia. Pero pronto se descubrió que las abejas se envenenan al libar el girasol y la colza tratados con determinados insecticidas. Y es que mucha miel cosechada procede de esos cultivos.



¿Están en peligro las abejas?

Si, los insecticidas las amenazan. Y el que el número de abejas disminuya es un problema serio: 8 de cada 10 plantas necesitan de las abejas para reproducirse. Y el ser humano aún no sabe fabricar miel ni semillas de plantas.

Cuando el apicultor levanta el techo de la colmena, tiene que evitar que le piquen las abejas. Para ello lleva un equipo protector y un ahumador que distrae la atención de las abejas.




El apicultor saca los cuadros móviles del cajón. Luego aparta con cuidado a las abejas con un cepillo. A continuación se lleva los cuadros llenos de miel a la fábrica.


¿Cómo se extrae la miel?



1. Se rascan los cuadros del cajón sobre una cuba. Con un cuchillo, se corta la lámina de cera que cierra cada alveolo.



2. Los cuadros móviles se colocan en el extractor. Al girar, la miel es proyectada hacia las paredes y cae en la cuba.



3. La miel filtrada reposa en un tanque de maduración. Las partículas de cera que suben a la superficie se retiran. La miel se envasa.

3. Gaitasun matematikoa

3.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen %.

Proba 4 estimuluk osatu dute, eta horietako bakoitzetik 5 eta 9 galdera atera dira. 26 item izan dira osotara, eta horietatik 24 puntu batekin balioetsi dira eta 2, 2 punturekin. Azken kasu honetan, puntu 1eko puntuazio partziala onartu da.

Itemak zailtasun maila desberdinekoak izan dira, batzuk oso errazak, asmatuak %89 izan direlarik, eta beste batzuk oso zailak, ikasleen %27-k baino ez baitituzte asmatu.

Galderetako lanak ebaluazio diagnostikoan ezarritako matematika prozesuekin erlazionatzen dira. Ondoko taulak erakusten du galdera bakoitzak matematika prozesu batekin duen erlazioa.

<i>Item zkia.</i>	<i>Gehieneko puntuazioa</i>	<i>Ireakia edo Itxia</i>	<i>Asmatuen %</i>	<i>Ebaluaturiko prozesua</i>
1	1	C	52	Ebaztea
2	1	C	62	Ebaztea
3	1	C	53	Ebaztea
4	1	C	27	Ukertzea
5	1	C	70	Ebaztea
6	1	A	43	Identifikatzea
7	1	A	69	Ukertzea
8	1	A	59	Ukertzea
9	2	A	56	Irudikatzea
10	1	C	80	Ukertzea
11	1	C	47	Ebaztea
12	1	C	29	Hurbiltzea
13	1	C	67	Ukertzea
14	1	A	73	Ukertzea
15	1	C	35	Ebaztea
16	1	A	89	Irudikatzea
17	1	A	64	Irudikatzea
18	2	A	37	Ebaztea

19	1	A	57	Ebaztea
20	1	C	58	Ebaztea
21	1	A	53	Identifikatzea
22	1	A	66	Ulertzea
23	1	C	73	Identifikatzea
24	1	C	68	Ulertzea
25	1	A	57	Ulertzea
26	1	C	42	Hurbiltzea

3.2. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz jakin daiteke zer den egiten dakitena eta dominatzera iristen ez direna. Gaitasuna mailatan banatu da, ondoko esanahiarekin.

1. MAILA

Maila honetan dauden ikasleek gaitasun matematikoaren maila oso baxua erakusten dute. Oso galdera gutxiri erantzun diete zuzentasunez. Galderarik tipikoena eta estatistikoki esanguratsuena maila honetan, zatiki baten irudikapen grafikoari dagokio. Kasu hauetan, probako galderaren formatua oso antzekoa da testu liburuetan izaten diren ariketekin.

2. MAILA

Maila honetan dauden ikasleak gai dira galdera xumeei erantzuteko. Galdera horiek gaitasunaren garapenaren oinarritzko maila suposatzen dute. Adibidez, gai dira zuzen irakurtzeko ordua ordulari digital batean, grafiko bat egiteko laguntzekin eta adibideekin, denbora kalkulu oso oinarritzkoak egiteko, taula oso errazak interpretatzeko eta bertatik informazioa ateratzeko, errezeta bat ulertzeko eta ondorio batzuk ateratzeko, etab. Lan horietan guztietan ez daude inplikatuak kalkulu mekanikoak (edo kalkuluak egiten badira lehen zikloari dagokion konplexutasun mailakoak dira). Maila horretan bi urrats suposatzen duten arazoak ere ez daude, ezta 4. mailako ikasle batek ustez egiten jakin behar dituen arazoitze matematikoak ere.

3. MAILA

Maila honetan dauden ikasleek gaitasuna menderatzen dute maila honi dagokion moduan. Aurreko mailetak lanak ebatzen jakitez gain, ikasle hauek gai dira testuinguru errealei dagozkien egoerak eta galderak ebazteko orduan ezagutza jakinak aplikatzeko. Adibidez, perimetroen kalkuluaren gaineko ezagutzak aplikatzen dituzte galderak erantzuteko. Oro har, gai dira planteatzen zaizkien egoerak ulertzeko eta alde zuzenetik eskuraturiko ezagutzekin erlazionatzeko. Badakite sakabanatuta dagoen informazioa ateratzen (adibidez, errezeta batean behar duten informazioa identifikatzen), jabetzen dira eta ulertzen dute egoera bat, nahiz eta zenbakizko informazio gutxi izan, kurtso honetan espero daitekeen arrazoitze logiko-matematikoa eskatzen duena. Gai dira bilatzeko baldintza jakin batzuk errespetatuko dituzten zenbakiak (hiru baldintza). Gisa berean, zuzentasunez ebatzen dituzte bi urrats eskatzen duten problemak. Proporzionaltasun egoerak ulertzen dituzte; badakite denbora kalkulu errealek egiten arrunt ohikoak diren egoeretatik abiatuz; gai dira irudi geometrikoak bizitza errealean identifikatzeko; txanponen balioa ezagutzen dute eta ongi moldatzen dira txanponekin, etab.

3+ MAILA

Ez da aurrekoarekiko maila desberdina; maila honetan baina, ikasleak aurrekoan baino gehiago menderatzen du gaitasuna. Maila honetan dauden ikasleek 3. eta 2. mailetan inplikaturiko lanak menderatzen dituzte. Badituzte aipatzeko modukoak diren berezitasun batzuk. Adibidez, bizitzan erabat egiazkoak diren egoerak ebazteko beharrezkoa den ezagutza arrunt zehatza eta berriazkoa dute. Horrela, badakite uztailak 31 egun dituela eta ez 30, lerro motak argi ulertzen dituzte, etab. Esan daiteke 3. mailakoek baino ezagutza sakonagoak dituztela. Ezagutza horiek gainera buruan dituzte, eragiteko moduan. Taula, errezeta, etab. bateko informazioa ulertzeaz gain, kasu hipotetikoak ebazteko ere erabil ditzakete (... beharrezko ... egiten bagenu...). Estrategiak erabiltzen dituzte egoera batean elementu batzuk identifikatu ahal izateko arakatzeko sakona eskatzen duten lanak ebatzi aldera. Adibidez, 3. mailakoek elementu dezente bilatzen dituzten bitartean, hauek gai dira elementu guzti guztiak kokatzeko. Gai dira grafikoak egiteko, akatsik gabe eta laguntzarik edo adibiderik gabe (gogoratu 3. mailan laguntzak eta adibideak baliatuz egiten zutela). Goi maila honetan tipikoak diren lan batzuk daude: gutxi gorabeherako kalkuluak egiteko gaitasuna eta objektu jakin baten luzera zenbatekoa den mentalki irudikatzeko gaitasuna eskatzen dute.

Mailen zenbakizko definizioa

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazioa erdiestea:

	Gaitasun matematikoa Puntuazio tartek
1. maila	0-9
2. maila	10-13
3. maila	14-22
3+ maila	23-28

3.3. Itemak: informazioa, adibideak eta atxikipena mailei

Maila bereko ikasleek joera dute galderei zuzen erantzuteko, zailtasun puntu batera iritsi arte, eta beraiendako zailak direnetan huts egiten dute. Horrela, hauek mailen arteko gaitasun desberdintasuna adierazten dute.

Adibidez, 16. itema erraza izan da ikasle guztiendako, eta horrek esan nahi du zatiki baten irudikapen grafikoa menderatzen dutela. 14.a zailxeagoa izan da, postre baten errezetan izan daitekeen akatsa zehaztea ez dago denen eskura, 13.ean kalkulu bat egin behar da denbora eta prezioa magnitudeen arteko proportzionaltasun zuzena errespetatuz. Gaitasun maila handiena duten ikasleak gai dira egiteko. Azkenik, 12.a ulermen orokorreko eta hurbilketa kalkuluko prozesu bat da.

Aurreko itemak ondoren azalduko dira:

Bizkotxo bat egin behar dugu


Bihar Koldoren amonaren urtebetetzea da eta bere aitak kaneladun banana bizkotxoa egitea erabaki du. Hemen duzu bizkotxo on bat prestatzeko behar duzun errezeta eta informazioa

KANELADUN BANANA BIZKOTXOAREN ERREZETA

<p>Zatiak: 6</p> <p>Kalorlak: 2800</p> <p>Egosketa: 40 minutos</p>	<p><u>Osagaiak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • 3 banana • 1 limoi • 4 arrautza • 210 g irin • 4 koilarakadatxo legami-hauts 	<ul style="list-style-type: none"> • 200 g azukre • 1/2 koilarakadatxo kanela-hauts • 90 g oliba olio • 1 kanela-makilatxo
---	---	--

16. Aitonak bizkotxoa marrazkian ikusten den moduan zatitu du.

Aitona eta Koldoren artean bizkotxoaren 2/6ren jan dituzte. Adierazi ondorengo irudian aitona eta Koldoren artean jan dutena.



Erantzun zuzena	Aipatu zeinahi bi sektore
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Irekia
Irakurketa prozesua	Irudikatzea
Gaitasun maila	1. maila
Asmatuen % 1. mailan	70,8
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	89
Itemaren balioespena	Item hau erraza izan da maila guztietako ikasleendako

14. Koldok errezetaren pauso guztiak jarraituz, bere urtebetetze egunerako kaneladun banana bizkotxoa prestatu du. Koldok akats bat egin du eta bizkotxoa erre egin da. Zein akats egin duela uste duzu?

.....

.....

.....

Erantzun zuzena	40 minutuz gorako egosaldea edo gehiegizko tenperatura
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Ireakia
Irakurketa prozesua	Ulertzea
Gaitasun maila	2. maila
Asmatuen % 2. mailan	61,9
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	73
Itemaren balioespena	1. mailako ikasleek ez dute ongi ebazten item hau

13. Amonari asko gustatu zaio bizkotxoa. 12 zati dituen bizkotxoa egitea erabaki du. Zenbat gramo irin beharko ditu?

- A. 340 gramo
- B. 400 gramo
- C. 420 gramo
- D. 440 gramo

Erantzun zuzena	C Erantzuna
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Ulertzea
Gaitasun maila	3. maila
Asmatuen % 3. mailan	78,3
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	67
Itemaren balioespena	1. eta 2. mailako ikasleek ez dute ongi ebazten item hau

12. Zenbat uste duzu pisa dezakeela Koldoren aitak prestatu duen bizkotxoak?

- A. 300 gramo baino gutxiago
- B. 301 gramo eta 400 gramoren artean
- C. 401 gramo eta 500 gramoren artean
- D. 500 gramo baino gehiago

Erantzun zuzena	D erantzuna
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Hurbiltzea
Gaitasun maila	3+ maila
Asmatuen % 3+ mailan	65,2
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	29
Itemaren balioespena	3+ mailako ikasleek baino ez dute ebatzi

Ondoko taulak erakusten du zein item dagokion gaitasun maila bakoitzari, baina ulertu behar da hurbilpenezko erreferentzia kualitatibo gisa, maila bateko eta besteko ikasleen arteko asmatuen ehunekoen arteko desberdintasuna ez baita beti aski estatistikoki erabat atxikitzeko maila bati.

Erantzun partziala edo osoa izan dezaketen galderak maila desberdinei dagozkie, ebaluatoriko prozesua gehiago menderatzea edo zabaltzea ahalbidetzen badute.

Gaitasun matematikoa

Itemak errendimendu mailetara egokitzea

Item zkoa.	Itemaren maila
1	3. maila
2	3. maila
3	3. maila
4	3+ maila
5	3. maila
6	3+ maila
7	2. maila
8	2. maila
9	3. maila. Erantzun partziala edo osatugabea 3+ maila erantzun osoa
10	2. maila
11	3+ maila
12	3+ maila
13	3. maila
14	2. maila
15	3+ maila
16	1. maila
17	3. maila
18	3. maila. Erantzun partziala edo osatugabea 3+ maila. Erantzun osoa
19	3. maila
20	3. maila
21	3. maila
22	3. maila
23	2. maila
24	3. maila
25	3. maila
26	3+ maila

3.4. Emaidza orokorrak


Estatistikoen taula (Irakurtzeko gaitasuna gaztelaniaz)

Kop. Osotara	5896
Gaitasun kop.	5888
Nesken kop.	2841
Mutilen kop.	3047
Gutxieneko puntuazioa	1
Gehienezko puntuazioa	28
Batez besteko puntuazioa	15,80
Desbideratze tipikoa	5,78
Nesken batez bestekoa	15,47
Mutilen batez bestekoa	16,10
1. maila (%)	16,54
2. maila (%)	18,26
3. maila (%)	51,58
3+ maila (%)	13,62

Alderdi azpimarragarriak

- Desberdintasun handiak daude banakako puntuazioen artean, puntuazio handienetik hasita (28 puntu) txikienera (puntu 1).


Banaketa mailaka



10 ikasletatik 6k 3. maila edo 3+ maila erdietsi dute; beraien adinari dagozkion prozesu matematikoak egiten dituzte.


10 ikasletatik 3 ez dira gai prozesu matematikoak behar bezala egiteko. Horien erdiak neurri bereziak behar ditu, beheragoko maila batean dagoelako

Banaketa sexuaren arabera



Mutilek neskek baino puntuazio altuagoa erdiesten dute, 0,63 puntu gehiago. Diferentzia hori arina dela uler daiteke.

Banakako puntuazioen banaketa



Puntuazioen banaketa, banaketa arruntaren hurbilekoa da, berezitasun batekin: zanpatuxeagoa da, batez bestekotik hurbil dauden puntuazioen zenbatekoa txikixeagoa delako kurba arruntean baino.

4. Irakurtzeko gaitasuna euskaraz

4.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen %

Proba bi testu idatzik osatu dute, eta horien ondoriozkoak dira 22 eta 12 item, hurrenez hurren. 34 galderetatik 32 balioetsi dira puntu 1ekin, eta 2, 2 punturekin. Kasu honetan puntu 1eko puntuazio partziala onartzen da.

Itemak zailtasun maila desberdinekoak dira; batzuk oso errazak dira, %94ko asmatuekin; beste batzuk, aldiz, hagitz zailak dira, eta ikasleen %29k baino ez dituzte asmatu.

34 galderei dagozkien lanak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko irakurketa prozesu desberdinekin harremanetan daude. Ondoko taulan erakusten da galdera bakoitzak irakurketa prozesuarekin duen erlazioa.

Ítem Zkia.	Gehieneko puntuazioa	Irekia edo itxia	Asmatuen %	Ebaluaturiko prozesua
1	1	A	91	Ulermen orokorra
2	1	C	94	Informazioa bilatzea
3	1	C	56	Interpretatzea eta berregitea
4	1	C	89	Informazioa bilatzea
5	1	A	48	Informazioa bilatzea
6	1	C	69	Informazioa bilatzea
7	1	C	85	Informazioa bilatzea
8	1	C	79	Interpretatzea eta berregitea
9	1	A	38	Informazioa bilatzea
10	1	C	93	Informazioa bilatzea
11	1	C	58	Informazioa bilatzea
12	1	C	62	Informazioa bilatzea
13	2	A	65	Informazioa bilatzea
14	1	A	73	Interpretatzea eta berregitea
15	1	C	69	Interpretatzea eta berregitea
16	1	A	63	Edukiaren gaineko

				hausnarketa
17	1	A	33	Formaren gaineko hausnarketa
18	1	A	35	Interpretatzea eta berregitea
19	2	A	61	Ulermen orokorra
20	1	A	51	Ulermen orokorra
21	1	C	53	Interpretatzea eta berregitea
22	1	A	78	Edukiaren gaineko hausnarketa
23	1	C	72	Informazioa bilatzea
24	1	A	89	Informazioa bilatzea
25	1	C	74	Informazioa bilatzea
26	1	A	37	Interpretatzea eta berregitea
27	1	C	47	Informazioa bilatzea
28	1	C	71	Interpretatzea eta berregitea
29	1	C	73	Informazioa bilatzea
30	1	A	72	Informazioa bilatzea
31	1	A	56	Interpretatzea eta berregitea
32	1	A	29	Interpretatzea eta berregitea
33	1	A	49	Interpretatzea eta berregitea
34	1	C	60	Interpretatzea eta berregitea

4.2. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz, jakin daiteke zer den egiten dakitena eta zer den menderatzera iritsi ez direna. Gaitasuna mailaka banatu da, honela:

1. MAILA

Maila honetan dauden ikasleak gai dira informazio literala ulertzeko, bai narrazio testuetan eta bai azalpenezkoetan. Hala ere, zailtasunak dituzte interpretazioa, ulermen orokorra, hausnarketa eta balioespenak eskatzen dituzten galderei erantzuteko. Nolanahi ere, gai dira pertsonaia nagusiaren deskribapen labur bat egiteko eta testuaren ildo nagusiarekin oso loturik dagoen interpretazio orokorren bat egiteko.

2. MAILA

Maila honetako ikasleek egoki erantzuten diete 1. mailako galderei, hots, informazio literala ulertzea eskatzen duten galderei, bai narrazio testuetan eta bai azalpenezkoan. Baina gainera, informazioa bilatzeko galderak ere ebazten dituzte, eta horiek testuaren ulermen maila handiagoa eskatzen dute. Gai dira, halaber, pertsonaiaren ekintza zehatz baten eragina aurreratzeko.

Nolanahi ere, zailtasunak dituzte ulermen orokorrerako, interpretaziorako eta testuak balioesteko. Ez dira gai inferentzia konplexuagoak egiteko, hurrenez hurreneko bi paragrafotan dauden hiru ekintza kontatzeko edo pertsonaien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak interpretatzeko.

3. MAILA

Maila honetako ikasleek zuzentasunez ebazten dituzte informazioa bilatzearekin erlasionaturiko galderak, literalak zein ez literalak, eta gainera, orokorki ulertzen dute testua eta gai dira berreraikitzeke, emandako esaldien bidez, istorioaren sekuentzia. Edukiaren gaineko hausnarketari dagokionez maila ona dute. Gainera, testu etendun batean ulertzen dute informazioaren banaketa eta non bilatu behar den berariazko informazio mota bat. Gai dira testua balioesteko eta testuaren gainean hausnartzeko, testuko datuak baliatuz edukiaren aplikagarritasunerako beharrezkoa den informazio esanguratsua ateratzeko asmoz.

3+ MAILA

Maila honetako ikasleek, 3. mailan inplikaturiko lanak egokitasunez betetzeaz gain, konplexuagoak direnak ere ebazten dituzte. Adibidez, gai dira aurreikusteko pertsonaiaren etorkizuneko portaera eta gai dira testuaren edukiaren gaineko hausnarketak eta interpretazioak egiteko, sinesgarritasun irizpideen arabera. Azalpenezko testuan gai dira testuan esplizituak ez diren interpretazio konplexuak egiteko.

Mailen zenbakizko definizioa

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazioa erdiestea:

	Irakurriaren ulermena euskaraz Puntuazio tartekak
1. maila	0-16
2. maila	17-20
3. maila	21-30
3+ maila	31-36

4.3. Itemak: informazioa, adibideak eta atxikipena mailei

Maila bereko ikasleek joera dute galderei zuzen erantzuteko, zailtasun puntu batera iritsi arte, eta beraiendako zailak direnetan huts egiten dute. Horrela, hauek mailen arteko gaitasun desberdintasuna adierazten dute.

Adibidez, 24. itema erraza izan da, 23.a zailagoa izan da, eta 31 eta 32. itemak ikasle gaituenek baino ez dituzte ongi egin.

24. Aurre-inskripzioa egiteko, zer zenbakira deitu daiteke?

.....

.....

.....

Erantzun zuzena	Zuzentze irizpideen arabera
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Irekia
Irakurketa prozesua	Informazioa bilatzea
Gaitasun maila	1. maila
Asmatuen % 1. mailan	66,8
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	89
Itemaren balioespena	Item hau errazagoa izan da maila guztietako ikasleendako

23. Zein dira udalekurik luzeenak?

- A Piraten udalekuak, 12 egunekoak.
- B Natura udalekuak, 10 egunekoak.
- C Udaleku guztiak iraupen berekoak dira.
- D Denak 10 egunekoak dira.

Erantzun zuzena	C erantzuna
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Informazioa bilatzea
Gaitasun maila	2. maila
Asmatuen % 2. mailan	61,2
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	72
Itemaren balioespena	1. mailako ikasleek ez dute ongi ebatzi item hau

31. Andoni Lehen Hezkuntzako 3. mailan dagoen mutiko bat da. Joan al daiteke herri kirolak egiten diren udalekura? Zergatik?

.....

.....

.....

.....

Erantzun zuzena	Zuzentze irizpideen arabera
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Interpretatzea eta berregitea
Gaitasun maila	3. maila
Asmatuen % 3. mailan	66,7
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	56
Itemaren balioespena	1. eta 2. mailako ikasleek ez dute ongi ebatzi item hau

32. Ekainean, oporrak hartu ondoren, mutiko batek iragarkia ikusi eta *Piraten udalekuan* izena ematea pentsatu du. Zer gertatuko da aurre-inskripzioa egiterakoan?

.....

.....

.....

Erantzun zuzena	Zuzentze irizpideen arabera
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Interpretatzea eta berregitea
Gaitasun maila	3+ maila
Asmatuen % 3+ mailan	61,8
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	29
Itemaren balioespena	Soilik 3+ mailako ikasleek ebatzi dute

Ondoko taulak erakusten du zein item dagokion gaitasun maila bakoitzari, baina ulertu behar da hurbilpenezko erreferentzia kualitatibo gisa, maila bateko eta besteko ikasleen arteko asmatuen ehunekoen arteko desberdintasuna ez baita beti aski estatistikoki erabat atxikitzeko maila bati.

Erantzun partziala edo osoa izan dezaketen galderak maila desberdinei dagozkie, ebaluatoriko prozesua gehiago menderatzea edo zabaltzea ahalbidetzen badute.

Irakurriaren ulermena euskaraz

Itemak errendimendu mailetara egokitzea

Ítem Zkia.	Itemaren maila
1	1. maila
2	1. maila
3	3. maila

4	1. maila
5	3. maila
6	2. maila
7	2. maila
8	2. maila
9	3+ maila
10	1. maila
11	3. maila
12	3. maila
13	2. maila (partziala) 3. maila (osoa)
14	2. maila
15	3. maila
16	2. maila
17	3+ maila
18	3+ maila
19	2. maila (partziala) 3. maila (osoa)
20	3. maila
21	3+ maila
22	1. maila
23	2. maila
24	1. maila
25	2. maila
26	3+ maila
27	3+ maila
28	3. maila
29	2. maila
30	2. maila
31	3. maila
32	3+ maila
33	3. maila
34	3. maila

4.4. Emaitza orokorrak


Estatistikoen taula (Irakurtzeko gaitasuna euskaraz)

Kop. Osotara	5896
Gaitasun kop.	1548
Nesken kop.	762
Mutilen kop.	786
Gutxieneko puntuazioa	4
Gehienezko puntuazioa	36
Batez besteko puntuazioa	23,01
Desbideratze tipikoa	6,13
Nesken batez bestekoa	24,18
Mutilen batez bestekoa	21,88
1. maila (%)	15,57
2. maila (%)	15,31
3. maila (%)	58,46
3+ maila (%)	10,66

Alderdi azpimarragarriak

- Desberdintasun handiak daude banakako puntuazioen artean, puntuazio handienetik hasita (36 puntu) txikienera (4 puntu).


Banaketa mailaka



10 ikasletatik 7 iristen dira 3. edo 3+ mailetara. Horiek ongi egiten dituzte beren adinari dagozkion irakurketa prozesuak.


10 ikasletatik 3 ez dira gai irakurketa prozesuak behar bezala egiteko. Horietakoen erdiek neurri bereziak behar dituzte, beharagoko maila batean daudelako

Banaketa sexuaren arabera



Neskek mutilek baino 2,30 puntu gehiago erdietsi dituzte. Diferentzia hori handia dela uler dezakegu.

Banakako puntuazioen banaketa



Puntuazioen banaketa, banaketa normalarekin erkatuz gero, asimetriko negatiboa izan da; moda (25 puntu) batez bestekotik (23,01 puntu) eskuinera jarri du.

